

La pequeña Suiza

# Sojo: “Aktore ona izan beharra dago komedia ondo egiteko”

IRENE ELORZA

Ilusio handiarekin itzuli da Kepa Sojo zinemagilea Zinemaldira. Joan den apirilean estreinatu zuen bere bigarren film luzea, *La pequeña Suiza*, eta aurtengo Zinemira sailean erakutsi dutela eta “oso pozik” dagoela aitortu du. Filmak zortzi aste egin zituen zinema-aretoetan, eta bigarren ibilbide bat abiatu berri du Netflix plataforman.

Filmak Euskadi erdian dagoen Gaztelako fikziozko herri bateko biztanleen gorabeherak kontatzen ditu. Telleria izeneko herriak, 700 urteren ondoren, euskal lurraldean sartu nahi du. Erkidego horretako gobernuak ezezkoa ematen dionean, eta aurkikuntza arkeologiko bitxi bat medio, munduko herrialde garatuenetako batean anexionatzeko eskatuko dute Telleriako biztanleek: Suitzan, alegia.

Identitatearen auziaz harilkatzen da filma, familia osoak ikusteko moduko tonuan eginda. “Zerbait gara, zerbait ustez hobeia izan nahi dugu, eta bat batean, zerbait are hobeia izateko aukera sortzen zaigunean, bost axola zaigu jatorrian izan nahi genuena”, dio zinemagileak bere lanaren gaiak galdetuta. Nortasuna eta antzeko gaiak desmitifikatzeko saiakera da filma, beraz. Izan ere, zuzendariaren aburuz, “jendeak ongizatea nahi du, azken finean, eta zure aberria zure inguru hurbila da, familia eta lagunak”.

## Aktoreak, oinarri

Film korala egin du zuzendari arabarrak, Berlangaren iturritik edan duen komedia. “Pertsonaia asko daude filmean”, dio Sojok, “eta bikoteen il-do nagusia dagoen arren, film korala da”. Gidoia idazten hasi zenean,



Kepa Sojo zuzendaria.

ALEX ABRIL

zenbait aktore buruan zituela aitortu du zinemagileak. “Oso pozik gaude aktoreen zerrendarekin, eskarmentu handia duten aktore oso onak dira”, esan du zinemagileak.

Jon Plazaola, Maggie Civantos, Ramón Barea, Kandido Uranga, Maribel Salas eta Secun de la Rosa dira, besteak beste, filmaren pisua euren gain hartzen duten aktoreak. Kepa Sojok adierazi duenez, “aktore ona izan

**“Nik izan dudak aktoreen zerrenda daukazunean, dena da erraztasun eta gozamen”**

beharra dago komedia ondo egiteko; negar eginaraztea errazagoa dela uste dut”. Komedia gutxietsitako generoa dela eta oso aktore onak eman dituela sinetsita dago *La pequeña Suiza* filmaren egilea. “Ramón Bareak edo Kandido Urangak horrenbesteko talentua dute, oso erraza dela beraiekin lan egitea; nik lantaldean izan dudak aktoreen zerrenda daukazunean, dena da erraztasun eta gozamen, sekulako eskarmentua dute eta gauza benetan miragarria da”, azaldu du zuzendariak.

f t

: Zinemaldiko informazio guztia  
www.naiz.eus  
naiz: